

# Jaietako eskeen erredundantziaren zentzia

(The meaning of the redundancy of festive petitions)

Arana Murillo, Anuntxi

Eusko Ikaskuntza. 51, Quai Jaurégiberry. F- 64100 Baiona/Bayonne

BIBLID [1137-439X (2004), 26; 221-238]

Jaso: 01.06.16

Onartu: 09.01.03

---

*Neguan zein udan, jai askotako osagaia da eskea. Besta egiteko eta ordaintzeko puskak eta sosak biltzen dituzte eskaleek, baina betebehar horrek ez du esplikatzen zer hartze duten eta zergatik. Badirudi beste mundukoen ordezkari direla, hemengoan emaitzak jasotzera eta haietzako mesedeak ekartzera etorriak, biziek ezin baitituzte beren hilak ahantzi.*

*Giltza-Hitzak: Domusaindu (Halloween). Eguberri. Inauteri. Pazko. Jondone Joane. Eskeak. Opariak. Hilan etortzea.*

*Tanto en verano como en invierno la petición es elemento constitutivo de muchas fiestas. Los peticionarios recogen género y dinero para hacer la fiesta y costearla, pero esta necesidad no explica la acogida que tiene ni la razón de la misma. Parece que sean mandatarios del otro mundo, que vienen a recoger las dádivas y a traer sus favores, puesto que los vivos no pueden olvidar a sus muertos.*

*Palabras Clave: Todos los Santos (Halloween). Navidad. Carnaval. Pascua. San Juan. Peticiones. Presentes. Venida de los muertos.*

*Aussi bien en été qu'en hiver la quête est un élément constitutif de beaucoup de fêtes. Les solliciteurs recueillent de la marchandise et de l'argent pour faire la fête et la financer, mais cette nécessité n'explique pas l'accueil qu'ils reçoivent, ni la raison de celui-ci. Il semble que ce soit des mandataires de l'autre monde qui viennent recueillir les dons et apporter leurs favores, puisque les vivants ne peuvent pas oublier leurs morts.*

*Mots Clés: Toussaint (Halloween). Noël. Carnaval. Pâques. Saint Jean. Quêtes. Présents. Venue des morts.*

Urte osoan zehar heldu dira jaiak eta bakoitzak bere nortasuna du, batzuetan oso markatua. Haietarik batzuek gauza amankomun asko daukate beren artean, bereziki negukoek eta urtearen hasiera markatzen dutenek. Gutiago udako solstiziokoek, eta halere haiek ere badute besteekin antza zerbait, hasiera bat, epe baten bururatzea eta berri bati ekitea zedarrizten dutelako.

Herri bakar bat ikertuz geroz, ez dira sobera azalduko erredundantziak, aspergarriak eta arbuatuak izanda, segur aski; horregatik, inguruko erresumetara zabalduko dugu begirada, errepikapenak askoz nabarmenkiago ikusiko ditugulakoan.

Jaia eratzen duten egintzak anitz dira, baina hemen eskeei lotuko eta jarraituko gataizkio batez ere, haiekin loturik agertzen diren sua eta ura doi bat ukituz.

## 1. URTEAREN HASIERAK

Noiz hasten da urtea eta noiz bururatzen? Erraza da erantzutea gaurko egutegi zibilaren arabera: urtarrilaren lehenean, dioskute agenda gehienek. Ez denek, eskola-urtean oinarrituek iraila dute lehen hilabetea. Gure zibilizazio ongi arautu honek jadanik aukerak ematen badizkigu, zer ez digun eskainiko tradizio zaharrak.

Euskal Herrian hasteko, *Eguberri* eta *Urteberri* ditugu. Zein da egiazko berria, zinezko hastapena? Esanahiaren aldetik badirudi biak gauza bat eta bera direla eta Hegoaldeko terminologiak, *Gabon* eta *Gabon-zahar*, adierazten digu bigarren lehenaren *otaba* edo dela, besta nagusiek *arrabesta* baitute, *Pazko-zahar*, adibidez, edo Laudioko *San Roke-zahar*.

Eguberri eta Urteberri baliokide direla erakusten dute hainbat datuk; abenduaren 24an azaltzen den Olentzeroz esaten dute Larraunen “*urteak egun haina begi dituela eta bat gehiago*”, urteari egun bat bakarrik geratzen zaiolakoan (Barandiaran 1984: 154). Horixe bera esaten ziguten guri abenduaren 31an: “*Urteak egun baino begi gehiago dituen gizona ez genuen, ba, ikusia kalean gora: oraintxe pasatu da-eta*”. Van Gennep-ek (3017) Metz hirian aurkitu zuen “*l’homme aux nez*” (“*à Metz on pouvait voir le jour de la Saint-Sylvestre un homme possédant autant de nez qu’il y avait des jours dans l’année*”); eta Bartzelonan eta Rosellón, baieztapen hori hitzez hitz harturik, atzera ondorioztatzen zuten 365 sudurreko gizona bazebilela urtearen azken egunean.

Abenduaren 25 eta urtarrilaren 1 ditugu, beraz, urte hasieraren lehen bi aldaerak: bata, solstiziotik lau egunetara, Elizak ospatzen; bestea, handik aste-betera, egutegi zibilak. Elizak Jesukristorentzat hautatu zuen sortegunean ospatzen ziren, antzinako Erroman, “Eguzki menderatu gabea”ren urteurrena (*Natalis Solis Inuicti*) eta Mithra jainkoarena. Azken hau *saxigenus* edo “petrogeno” zen, harritik jaioa sua sukarririk sortzen den moduan, eta ikonografiak erakusten du haitzetatik ateratzen, inguruko artzainek lagundurik. Hortxe ditugu gure jaiotzetako irudi batzuk (Turcan, 1968).

Urteberri eta laster, urtarrilaren 6an, Apalazio edo Trufania (Epifania) heldu da. Eguberritik hartara doan urtearen hasierako aroari “Hamabi Eguneko Zikloa” deitzen zaio: zotal egunak dira horiek, hamabi hilabeteen igarkariak. Trufania hitzak (trufa = iseka) Inauteri giroan sartzan garelara adierazten du, baina trufa ez da egun bakarreko gaia, ziklo osoari doakio eta haratago ere hedatuko da.

Erroman aurkituko dugu aldaera zenbaiten zergatia, Caro Barojak (1965: 152) ohartarazi zuen han ere ez zirela datak trenkatuak: egutegi errepublikanoak martxoan ematen zuen urte hasiera eta egutegi julianoak, Egiptotik Cesarek ekarrita, urtarrilean. Elizak luzaz egutegi errepublikanoa erabili izan du eta haren zalantzak nahasketak areagotu baizik ez ditu egin. Ebangelioek ez baitute Jesusen sortegunaren datarik ematen, Elizako Aitek ezin izan zuten adostu eta, apirilaren 18an batzuek, Martxoaren 25ean besteek, urtarrilaren 6an Ekialdeko elizek, 354. urtean finkatu zen abenduaren 25ean (Van Gennepe: 2858). Oraindiko aldakorragoa urtearen hasiera: abenduaren 25ean, martxoaren 1ean, Pazkoan... XVI. mende arte ez zen erabaki urtarrilaren 1a, baina Ingalaterran martxoaren 25ean izan zen XVIII menderaino.

Ondorioz, urte hasierako errito batzuk martxokoak ziren, hala nola Espainian “marzas” deitzen diren errondak. Orain Urteberriz urten dute mutilek abestera, urteari ekitea baitute funtzioa, baina “marzeros” izena aldatu gabe, oraingo jendeentzat ulergaitza dena: Espainiako *Radio Tres* irratia folklore emankizunetan maiz entzun izan ditut harriduraren adierazpenak. Handik laster hasten baitira Inauteri goiztiarrenak, Santanderreko Silio herrikoa eta Zubietakoa, haiei benetako “*invernadas ancestrales*” deitzen die esatariak, oraingo Inauteri hiritartuetatik desberdintzeko edo. Euskal Herrian badira goizik ospatzen direnak: lehena Uitzin da urtarrilaren hasieran, erditsuan Erasunen, gero Leitzan, Ituren-Zubietan eta Sunbilan. Eta bitxi egiten zaie protagonistei berei, Iturengo joldun batek azalpenak eman baitzituen aipatu irradian, 2001.ean, adieraziz Francoren garaian debekatua zela Inauteria eta ezkutuan ospatzeko aurreratu zutela, aldi berean errazago zitzaiela urtarrilean egitea, otsailean basoan lanean ibiltzen dira eta mutilak.

Hamabi eguneko zikloak zein Inauteriak markatzen dutena gauza bat bera izanda –urtearen hasiera– bata bestearen dobeletea datekeela pentsatzeko arrazoiak badira: halakoak dira behintzat, bietan agertzen diren asmoak, funtzioak eta temak. Testuinguru horretan ondo ulertzen da Olentzero eta Zarpantzarren antza, alde askoetarik erredundanteak diren pertsonaiak: biok erreak izango dira eskean erabili ondoan, bioi tripazaletasuna leporatuta.

Alabaina, egutegi erromatarrek pentsarazten duten baino gehiago zabaltzen dira Eguberri-Inauteri giroko ospakizunak, eta jadanik San Nikolas egunean, abenduaren 6an, atxemanen ditugu elementu berdinak. Eta hori ere aski ez izanik, gibelera egin behar dugu, azaroaren leheneraino, mundu zeltikoan orduan baitzen *Samhain* jaia, urtearen hasiera eta hilen eguna; Elizak Domusaindu jarri eta, sinkretismoan sortu zen *All hallow's eve*, “Saindu Guztien Bezpera”, oraingo *Halloween*; Irlandan, suak, argiak eta linternak pizten zituzten, gau hartan ibiltzen omen ziren sorginak eta izpiritu gaiztoak uxatzeko.

Azaroaren lehenetik abiatuko gara, metodologia eta argitasun arrazoiengatik, urte osoaren bira egiteko: handik egutegian aurrera joanez, San Martin dugu laster eta, San Nikolasen barna, hamabi eguneko ziklora iritsiko gara; haren barruan Egu-berri, Inuzenteak, Urteberri edo Urtats, eta Trufania aipatuko ditugu, Inauterian bururatzeko udazken-neguko ospakizunak. Eta udaberri-udakoetan sartzeko.

## 2. URTEKO LEHEN ESKALEAK: HALLOWEEN

Domusaindu eta Hilan egunean abiatzen da eskaleen sasoina. Hilak etortze-ko unea, leku askotan esaten dutenez, Euskal Herrian ere bai: Buxandan diote prozesioan ibiltzen direla arimak, elizarik eliza, eta sepulturetan piztuak dauden argietarik bana hartzen dutela (Barandiaran 1961: 96). Erresuma anglosaxoietako *Halloween* famatuan eske egiten zuten gazteek, “*trick or treat*” esanka, saria ematen ez duenari jukutriaz mehatxatuz.

Azken urte hauetan kuiaz bete dira gure bazterrek Domusainduko bezperan, eta batzuk izugarri haserretu dira, jai hori “inperialismo yankee-ak” ekarria delako, *american way of life* sakatzearen testuinguruan: Irlandarrek Amerikara eramane zuten erritua merkantilizatua etorri zaigula atzera, Mc Donald, Walt Disney eta Coca-Cola daudelarik haren promozioaren gibelean; osterantzean *Halloweengo* txalapartaren guztiz alderantzizkoa zela Europan ospatzen zen hilan eguna: “*Une fête des morts qui ne fut jamais en occident une fête des enfants, mais une fête de recueillement où les pauvres et les exclus jouaient –en Bretagne– le rôle de messagers entre les vivants et les morts*” (Prado 2000: 131).

Ados, baztertuak ziren mezulariak, baina, hain zuzen, haurrek betetzen ahal dute errol hori eta, hala denean, nahiko alaiki jokatu ohi dute, lotsagabeki ez esatearren. Hilan egunaren bezperan kuia hustu batekin urtetea ez da bakarrik Irlandakoa izan, Europako herrialde anitzetakoa baizik, urrunera joan gabe, Nafarroako Erriberakoa: Domusaindu arratsean hilak etortzen direlakoan ez zela kanpora jalgi behar esaten zuten, baita kontatu ere mandazain sinesgabe bat atera zela, desafioz, eta laster ikusi zuela arimen prozesioa, oro kandela eskuetan eta otoizka. Istorio debotoek eragin beldurra baliatuz, mutiko koskorrek kalera urten, kuia hustuez hornituak behialako arimak bezala, ibiltariak ikaratzeko ahaleginean.

Mutrikun ere egiten zuten kuian jokia, eta orain berreskuratu:

“Anima Egunaren bezperan gaztetxoek hil eta bizien munduak bat eginez egiten zuten gau-jolas edo jai txikia. (...) “Soloetatik lapurtutako kalabazak hustu, aurpegiak landu eta kandelak piztu ostean, kalez kale ibiltzen ginen enterradorearen kontra eta animen alde abesten”. (...) Iluntasunaren konplizitateaz, herriko xoko guztiak zeharkatzen zituzten jendea izutzen, barrezka eta kantuz. (...) Orain 30-35 bat urte galdu zela uste da, aurrerapenak kalean argia jarri eta umeen jolas ohiturak aldatu zituenean. (...) Jangek/n Me Gazte Elkar-teak (...) herrian galdutako ospakizunak berreskuratze lanetan ohitura honen berri jaso eta **Gaba Beltza** jaia antolatu zuten. (...) “Nagusienek pozez begiratzen zieten kalabaza tailerretako gaztetxoei lanean eta bat baino gehiago animatu zen beretzat ere kalabaza bat prestatzera etxerako, dendara edo taber-

narako. Giro polita lortu zuen". Honezkerok irakurleak esango du "hau Halloween yankiaren kopia bat da!" Batek baino gehiago aurpegira bota zien hori berbera antolatzaileei" (A. Arrizabalaga, *Egunkaria* 1998.11.05).

*Halloween* ez zaie arrotz, beraz, adinekoei. Besterik da orain dituen ezaugarri eta erabilpen kontsumistak, baina hori aroaren marka da, Eguberriri eta Inauteriarri ere doakiena. Finean, kritikalariek ere onartzen dute bizitza erritualizatzeko beharrari erantzuten diola besta "berri" horrek, ezinbestekoa baitugu sozietatena lur gainean irauteko.

Nafarroako eta Mutrikuko bestari kuiadunek ez zuten baitezpada eske egiten, beldurra eragitea zuten helburu aitortua. Baina, antzeko moduan ibiltzen ziren haurrei eman egiten zaie: Dunkerque herriko eskolako haurrek, Eguberri aitzineko astean, erremolatxa, kuia edo arbi hustu eta dekoratzen zituzten, barnean kandela piztu eta makila muturrean ezarriak eramaten zituzten, herriko kaleetan zehar; gero, eskolara berriz etorrira, opilak banatzen zizkieten (Van Gennepe, 1953: 2844).

Ikusten denez, Domusaindu bezperako giroa Eguberriz ere aurkitzen da; Irungo gazte batek adierazi zidan bere auzoan horrelako zerbait ikusia zuela haurretan, Gabon gauean haren ustez. Baina Inauteriarekin erkatzen dute gehien bat *Halloween*, atzeritar-inportatua dela esatera tematzen direnok: geure-geuretzat eta europar jatorritzat hartua den Haratuzte zaharra txokoratu eta haren bizkar hazi izana leporatzen diote jai berriari (*France Culture* irratia, 2001ko Inauterri asteartean). Preseski, diote beste batzuek, Inauteria ongi errotua den eskualdeetan, eta harekin duen antzari esker, bildu du arrakasta kuku arrotzak, Britainian eta Frantziako ipar-mendebaldean; ekialdean, alderantziz, San Nikolas nagusi den eskualdean, ez da hainbeste sartu (J.-M. Normand *Le Monde* 1998.10.30). Hirugarren eritzi batek fenomeno berean sartzen ditu Inauteriak eskolatan ezagutu duen arraberritzea eta *Halloween*-en inbasioa: biak "teknoparadan" inspiratuak izan arren, individualismoari aurre egiteko beharrari erantzuten diote, gure buruari erakusteko "gu" bat osatzen dugula (H. Tincq, *Le Monde*, 2000.11.02).

Inauteriarren adiskidea izan zein partida izan, haren baliokidea dela *Halloween* adierazten dute aburu hauek.

### 3. EMAILEAK ETA ESKALEAK, ABENDUTIK INAUTERIRA

Papa Noël, Jesus Haurra, Hiru Erregeak eta Olentzero dira Eguberriko pertsonaia ezagunenak gure artean, baina haien aurrean iragaten dira San Martin aza-roaren 11an eta San Nikolas. Luther-en izenkidea izateari zor dio San Martinek Alemanian iraun izana; asto gainean ibiltzen da haurrei opari banatzen; Flandria Maritimoan, Belgikan, Holandan eta Kataluniako Ampurdanen ere ezaguna da (Van Gennepe: 2982). Gauza bera egiten du San Nikolasek Belgikan, Alsazian eta Lorrenan, eta haren legendak esaten du zergatik den haurren zaindaria: ostaler batek hiru haur hil eta gatzean sartu zituen bere sotoko kupel batean, txerriak egiten den moduan; denboraren buruan santua iragan zen inguru haietan, osta-

tuan sartu eta jatekoa eskatu, kupeleko gazikia nahi zuela zehaztuz; zerbitzatu zioten, bai, eta hiru haurrak berpiztu zituen. Belgikan, Holandan eta Frantziako ipar-mendebaldean ume denek zapata jartzen dute tximinian Nikolasen egunaren bezperan, Papa Noëli bezala, oparien zain (Van Gennepe: 2983-96).

Oparigile funtzioa betetzen duten pertsonaia horien aroa San Martinetik Trufaniaraino zabaltzen da Europan; eskutitzak bidaltzen dizkiete haurrek opariak eskatzen. Oraingo kontsumismoa gaitzestearekin batera, usu esaten da gure antzinakoen garaietan ez zela holakorik: Comminges-en egin inkestaz Gratacos-ek dio:

“Lorsque je demande (...) si pour Noël on offrait des cadeaux aux enfants, Bertrande me répond (...): Des cadeaux ? Il ne s'en parlait pas de ça madame” !... (Gratacos 1995: 37).

Orrialde batzuk haratago (ibid.: 48), ordea, ikerleak idazten du Urtatsez auzo-enganara joaten zirela haurrak, eta aran, intxaur, gaztaina eta sagar ematen zirela: hots, eske egiteko ohitura bazen eta, eskatzen duenari eman batzaio saria, harexen bila joaten ziren umeak auzoen etxera. Hain zuzen, eskeetan erabiltzen eta erakusten diren hainbat pertsonaia emaeleak ere dira orain: San Nikolas eta Olentzero, kasu, ateratzen ziren kalera eta etxez etxe ibilki, kantuak eskaintzen eta jateko zerbait hartzen. Belgika eta Europako iparraldean San Nikolas emaele izan arren, eskaleekin ere ibiltzen da (Lévi-Strauss 1952).

Kaleko eskaleen aroa oparigileena baino luzeagoa da: *Halloween*-en hasten eta Inauteriraino luzatzen da, non ez den Pazkoraino eta Donibaneraino ere. Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan San Nikolas Txikia ibiltzen da, haur bat apezpikuz jantzia. Seguran, zaldi gainean urten du mutiko-apezpikuak, bere adinekoek lagunduta, kantuz eta eske: goxokiak, intxaurrek, urrak edo txanponak ematen dizkiete. Oihartzunen berdin ateratzen dira, apezpiku jantzitakoa buru dutela, kalez kale abesten eta balkoietan daudenei “bota” oihukatzen; Eguberri laster datorrela iragartzen du Nikolas Txikik (*Egunkaria*, 1999.12.19), *adviento* osoak bezala, funtsean. Muruzabalen ere eske ibiltzen dira apezpikua eta laguntxoak. Otxandianoko ospakizunaren berri ematen digu Azkuek, eta ohartzeko da Agata Deunaren eskean bezala erabiltzen direla makilak:

“Esta se hacía de esta manera: el mayor o el más distinguido de los alumnos de la escuela se cubría de una mitra de papel, sin duda haciendo de San Nicolás. (...) Unos (...) veinte (...) compañeros suyos, provistos de cachiporras le precedían en dos filas y al cantar golpeaban la tierra cada cual con su palo. Todo lo recogido se lo entregaban al maestro, el cual se encargaba de dar comida y cena a todos los niños de la escuela” (Azkue 1971: 361).

Garinoainen 9-14 urteko haur guztiak jalgitzen direla esaten digu Caro Barojak (1965: 297), Iribarren zitaturaz; ondoan Kataluniakoa aipatzen du, gaineratuz “*desde muy antiguo*” betetzen dela San Nikolaseko Apezpiku Txikia hautatzeko ohidura; gauza bera Inuzenteen egunean, eta Trufanian Babaren Errege txikia hautatzen zuten Iruñean. Haurren jaiak dira San Nikolas, Inuzenteak eta Epifania, oso antzekoak, eta azken bien lotura ebangelioak berak azaltzen du: ekial-

deko mago edo jakintsuek Herodesi jakinarazi zioten juduen errege sortuberrria zela, eta profeziako Mesias ez ote zen beldurturik, Betleemen eta hango lurralde guztian bi urtez peko haur guztiak –inozenteak– martirizatu zituen Herodesek (Matiu, 2).

Urtebarriz, Arratian eta Zeanurin, emakumeek gizonengandik hartzen dabez gabonsariak edo aginaldoak; Erregenez, barriz, gizonek emakumeen eskuetatik hauxe kantatuaz:

“Agilando de montaña, hiru intxaur eta lau gaztaina, haren ganean lau sagar, nik bai altzoa zabal-zabal” (Azkue 1959: 339).

Orozkon (Arana, 1996: 407) gaurkotu dute ohitura: eskeren orde, Urtebarriz mutilek gomitatzen dituzte neskak ostatura, eta Apalazioz (Epifaniaz) alderantziz. Urtatsez, Baxenabarrako Dohoztiko gazteek dirua biltzen zuten, aurpegia ikatzez belzturik “sosa edo pota” galdatuz, (Barandiaran, 1962b: 77): esaerak *Halloween*-go “trick or treat” oroitarazten du.

Urtarrileko Inauteri goiztiarrenak pasata Euskal Herriko eske ospetsuena du, Agata Deunarena. Laster Emakunde, Gizakunde eta Orokunde (Septuagesima, Sexagesima eta Quinquagesima) ospatzen dituzte Nafarroan. Uitzin eta Betelun Gizakunde egunean neskek mutilei lepotik oratu eta zerbait eskatzen diete: “Zer agintzen didazu” edo erranez; Emakunde egunean alderantziz da (Garmendia 1973: 202 eta 218). Azkuek Oihenarten eskuizkribu batean “*urkhugau*”ren aipamena aurkitu zuen:

“Neska-mutilen jostaketa bat da, Gabon-zahar iluntzekoa. Mutilak soka batez lotuta eramaten ditue neskatxak. Neskatxak jateko zerbait biharamuneko eskaintzen dute, beren burua lokarre bage ikustearren. Beste honenbeste egiten due neskatxak mutilakin errege bezperan” (Azkue 1959: 333).

Otsailaren bukaeran izaten da orain “kanonikotzat” hartzen den Haratuztea, tradizioan eske egiteko egunak: “puxka biltzea” esaten diote Etxalarren (Garmendia 1984: 91); Saran eta Oronozen gerrena daramate gazteek, xerri pusken biltzeko (Garmendia 1973: 33 eta 212); Antzuolan sorgindantzan eta eskelanean bilduarekin bazkaria egiten dute (ibid.: 138); Elduaienen eta Berrobin, lukainak zintzilikatzeo makila eta arrautzendako saskia (ibid.: 144-46).

Ez dira horretan bururatzen urteko eskeak, Pazko, Maiatz eta Jon Done Joanez ere egiten baitira, geroago ikusiko dugunez.

#### 4. ESKE KANTUAK

Udara buruz jo aitzin, udazken-neguko eskeetako koplak aipatuko ditugu, kasik berdinak ospakizun batetik bestera, datak elkarren trukagarriak bailira, San Nikolas eta Apalazio, kasurako. Azkuek (1971: 361) Arrasateko, Otxandianoko eta Ataungo San Nikolas aipatzen ditu. Hona Ataungoak:

“San Nicolás coronado, confesor es muy honroso. (...) San Nicolás, quilisco-lás, comer castañas, matar gallinas un par de capón para el obispo. Aquí somos cuatro, cantaremos dos, una limosnita por amor de Dios” (Azkue 1971: 362).

Berdinak dira Otxandianoko kopleetako hasiera eta bukaera: “San Nicolas coronado, confesor es muy ondrado. (...) Cantaremos dos, una limosnita por amor de Dios”. Halaber Garinoangoak: a

“San Nicolás coronado, obispo fue muy honrado. (...) Viva el obispo, muera el gallo, cuatrocientos y un caballo. Aquí estamos cuatro, cantaremos dos, una limosnita por amor de Dios” (Caro Baroja 1965: 297).

Horrekin batera oilarra erosi eta, begjak ezkutuak, makilaz hiltzen zuten Garinoainen (Caro Baroja 1965: 297). Oilar jokoa edo antzararena Inauteriz egiten da leku askotan: Gernikan Haratuzte martitzenean (Garmendia 1973: 178); Biguezalen, deus ematen ez zieten etxean hau kantatzen zuten hurrek: “A este gallo escarbador que escarba trigo y avena esta noche ha de morir por los niños de la escuela” (Garmendia 1984: 77); hori bera kantatzen eta oilarra hiltzen zutela gogoratzen zuten Luiaondoko xahar batzuek, eta han ere Inauteriko.

Urteberriz mutikoak ibiltzen dira Beran: “Gilin-galan, gilin galan, duenak ez duenari eman, bertzelaz karrotea burutik beheiti” (Azkue, 1959: 335). Egun berean Durangon:

“Urtebarri barri, / Daukonak ez daukonari, / Nik ez daukat eta niri / kurtso bete gari. / Kanteretan bat, maileretan bi, / Ekatzu aginaldo Jainkoagatik. / Aginaldo, aginaldo / Bizkaitarrak Durango” (*Egunkaria*, 1992.12.31).

Apalazio egunean, Zeanurin eta Amorebietan, eskean dabiltzan umeek:

“Apalazio zalduna, hiru Erregen eguna, hiru erregeak bialdu gaitue limosnatxo baten bila. Zotzak eta paluak, Martin Antonen Kontuak, Martin Antoni eroan dautsoz hiru oilanda katuak. Haren hazurrak batu ezinik, hak erabilzan saltuak! Salto eta brinko, salto eta brinko, Jose Marien aurrean, Gabon gaueko intxaur-saltsea guztiz birrindu artean” (Azkue, 1959: 332 eta 1971: 282).

Berdintsuak Orozko bertsuak, bukaerak San Nikolasekoak oroitazten:

“(...) Manolixori eroan ei deutsez hiru oilanda katuak, / Haren hazurrak batu ezinik katarra bik zer saltuak! / Aquí estamos cuatro, cantaremos dos, / una limosnita por amor de Dios.”

Amorebietako bertsioan ongi agertzen da erregeak eskaleen aldean daudela, ez direla emalleak.

Kopla andana batean aingeruekin identifikatzen dira haurrak. Nafarroa Garaian:

“Urteberri berri berri / Zer dakarzu berri? / Uraren gainean bakea eta osasuna. / Eguberri xaharra, nik atorra zaharra / Maukarik ez, nik axolarik ez. /



Urtats! / Aingeruak gara, zerutik heldu gara; / Boltsa badugu, dirurikan ez dugu: / Urtatsak behar ditugu! / Urtats!” (Azkue 1971: 379, 274).

Eta hau kantarazten zien ilobei Urdulizko amamak, gabonsaria eman aurretik (Gaztelurrutia, pertsonalki adierazia):

“Aginaldo, aginaldo, / Bizkaitarrak Durangon. / Zazpi gaztaina, zortzi intxaur. / Aingeruak gara, zerutik gatoz, / Poltzian badau (dago?) baina, eskean gatoz.”

Urteberri eta San Nikolas batzen dituzte honako kopla hauek:

“Urte berri berri / txarri belarri / otarra bete gaztaina / gainean lukainka bi / San Mikolas coronado / confesor es muy ondrado. / Aingeruak gara, zerutik gatoz, poltsa badugu baina eskean gatoz” (Azkue, 1959: 314).

Arraiotzekoek, elementu hauek aipatzen ditu: “Urteberri berri (...) Uraren gainean bakea (...) Aingeruak gara (...) Boltsa badugu, dirurikan ez dugu” (Imbuluzketa: 1991)

San Nikolas, Urtebarri, Apalazioko kantak elkarren aldagarriak izateak erakusten du hurbil direla denak, egutegian ez ezik, esanahian ere. Ihabarren urte hasieran ez baina Aste Santuko “Aizaroko” arratsetan ateratzen dira haurrak eske eta:

“Aingeruak gira zerutik heldu gira / orratxaren bila monumentuarendako / Ez duenak eman nahi / Atari guztiak hautsi bai” (Azkue, 1971: 274).

Mehatxuan igartzen da Inauteriko giroa, nahiz sasoinean Eguberriko garaitik urrun gauden, baina Pazkoan ere protagonismo handia daukate aingeruek, beti haurrek irudikatutik. Geroago joango gara udaberrikora eta udakora.

Zeruko aingerutxoengana itzuli baino lehen, lur azpikoei ohartuko gatzazkie. Ermuan, joan den mendeko 30garrenetan, bertsoak jarri zizkieten Haratuztez hartzarekin egiten duten eskeari: animalia gose eta egarriz ei dago eta “Begiratauta beronek dauka / Errukarizko plantia, / Beroni jaten emotiarren / Eskatzen dugu limosnia”. Hartza beste mundukotzat jotzen da testuinguru erritualean: neguko loaldia lurpean eginda, sabelean omen daramatza hilen arimak eta puzkar batean ateratzen ditu (Gaignebet 1979: 118).

## 5. HILAK ESKE

Ecuadorko Carchi indioek, Domusaindu arratsean, hilendako janaria mahai gainean ezarri eta gaubeila egiten dute etxeko atea zabalik utzita; bitartean haur tropak ibiltzen dira kalean, “Aingeruak gara, zerutik heldu gara, ogia eskatzen dugu” kantatzen, etxe bakoitzean otoitz bat erran eta zerbait jaten dute; hilak ordezkatzan dituzte haurrek eta haiei ematen zaiena hilei opaetsia da (Frazer, 1983a: 453).

Bretainia Beherean Hilen eguneko bezperan, etxekandereak janaria uzten zuen mahain gainean (sagardoa, gaztanbera eta mahatamia beroak), baita sua

pizturik ere gauean; ahots lugubreak entzuten ziren kanpoan, “heriotzaren kantariak” ziren, kalez kale ibilki, lotan direnak iratzartzen eta oroitarazten arimen alde otoitz egin behar dutela; gau hartan hilak supazterrean berotzen dira eta haientzat prestatu janaria jaten dute (Frazer, 1983a: 446). Orainsu arte egin izan dira hilendako eskaintzak Domusainduz: Gratacos-ek (1995: 239-40), Haut-Nistos eskualdean solastatu duen emazte batek 1982 arte utzi izan ditu supazter ondoan intxaurrak, gaztainak eta gasna, “*On l’a toujours fait, ma pauvre*” esan zion ikerleari, eta orain saguengatik ez badu gehiago egiten, “*Dans la cheminée je mets le souquet, qu’il brûle toute la nuit*”; eta sinestea zuen gizon batek gaineratu: “*Pour qu’ils viennent se chauffer!*” Bisitan datozen hilei zor zaien hospitalitatea segurtatzeko, debekatua zen gau hartan etxetik ateratzea.

Ez dira soilik Domusainduz etortzen hilak, funtsean urtean hiru aldiz biltzen direla diosku Van Gennep-ek (1946: 801): Domusainduz, Eguberriz eta Donibanez. Hiru data berak ematen ditu Douglass-ek (1973: 85) Euskal Herriko eta Barandiaranek ere jaso du sinestearen berri:

“Según creencia en Larrabezua, los difuntos vuelven a sus casas en Nochebuena y dejan huellas de sus pies en la ceniza del hogar. En otros pueblos dicen que los difuntos suelen aparecer a primeras horas de la noche hasta las doce; después el canto del gallo les obliga a retirarse. Más extendida está la creencia de que las almas de los muertos andan en el mundo desde el mediodía de Todos los Santos hasta el de Difuntos” (Barandiaran, 1984: 160-61).

Beste bisitariak ere etortzen dira Gabon gauean: “*On croit que devant la bûche incandescente (de Noël) viendront se chauffer des anges, des âmes ou des morts de la famille*” (Van Gennep: 3143). Hilen presentzia orain esplizituki aitortua ez izan arren, haren itzala asmatzen da gau hartan etxeko arbasoentzat izaten den oroitzapen berezian. Aspaldi ez duela, Comminges-en janaria uzten zieten biziak, bazekitelako zertarako etortzen diren beste mundukoak honetara; gaur egun iradokizuna baizik ez da geratu:

“Les portes, il ne faut pas les fermer le soir de Noël (...) Le gâteau de Noël on le faisait au four. On le laissait sur la table pendant la messe de minuit. Oui pour qu’on puisse en prendre. (...) Qu’il fallait le laisser sur la table (...) Je ne sais pas qui venait! Ils ne le disaient pas, les vieux!” (Gratacos, 1995: 39).

Eguberriren aurrekariak dira haren aitzineko asteak, “adviento” edo abendu. Strasbourg-en XVI. mendeko bukaeran bazen sinestea bat-batean edo bortizki hildakoen arimak ibiltzen zirela abenduan (Van Gennep: 2870). Haur eta gazte txo maskaratuengan zenduen trapalak igarri izan dira, usu agertzen baitziren Hamabi Eguneko Zikloan; zehazkiago, Francfort-en XVII. mendean zorionak opatzera eta etxek txek kantatzera jalgitzen ziren gazteak hilen armadatzat edukitzen zituztela ikusleek ez da dudarik, Hilster-ek *De exercito furioso* liburuan adierazten duenez (Ginzburg 1992: 179). Halaber, ez da dudarik Eguberri aitzinean Dunkerque-ko eskolierrak zeramatzaten kuia argituak burezurren irudiak zirela, hilen irudiak; ikusiak baititugu horrelako jokariak, izara bat burutik behera jantzita, fantasma-itxura emateko.

Ean “Abenduak” deitzen dituzten ateraldietan, umeak kantuz ibiltzen dira arratsetan, makilez erritmoa markatuz, eta azken egunean, 24ko goizean, eske egiten dute zerbait ematen dietenei “pastikune” (pax tecum) opatzen; hilen munduarekin duten lotura berezia erakusten dute bide nabar, urtean norbait zendu den etxeetan abestuz (*Egunkaria*, 1997.12.1). Gaskoiniako hainbat hiritan (Aki-ze, Tartas, Peyrehorade...) azken Eguberritik jaio berri bat izan duten etxeetara joaten dira haurrak taldeka eskatzera, *Pique-hoû* deitu koplak kantatzen dituzte eta zoritxarra opatzen deus ematen ez duten gurasoei: ninia laratza bezain itsusia izango al dela, edo eskalapoina bezain txikia (Van Gennepe: 2926).

Haurrek eskeetan duten inportantzia nabaria da; badirudi San Nikolas, Inuzente eta Epifania egunetan, martirizatu txikien oroitzapenak eskubidea ematen diela erasotzaile ibiltzeko gero. Erdi Aroko zoroekin daukaten lotura erakusten du Basileako Kontzilioak (1431ean) bermatu zien bestaren izenburuak: “*festum fatuorum vel innocentium seu puerorum*” (Fabre-Vassas, 1994: 202). Kofradia moduko elkarteak osatzen zituzten, beren buruzagia hautatzen, Lorrenako bere-terrek esaterako (Fabre-Vassas 1994: 197), eta protagonismo handia zuten Pazko inguruko ospakizunetan.

*El Carnaval* liburu ospetsuaren “Zoroen tropak eta Purgatorioko arimen kofradia” kapituluan (III, 6), Caro Barojak azaltzen digu identifikatuak zirela penaz dabilzan arimak eta Inuzenteak, eta azken hauen eguneko eskeak arimen aldekoak ere bazirela; halaber, Toledoko Madrilejos herrian mozorroturik ibiltzen zirela Domusainduko eskean. Harreman bera aurkitu du Garmendiak (1973: 214) Berueten: astearte Haratuztean lagun zenduen aldeko meza baten entzutera joaten ziren mutilak.

Caro Barojak aipatu lanean (II, 12.) gogorarazten du Antzinako Erroman lotuak zirela urte hasiera eta zenduen etortzea, eta inongo zalantzarik gabe baieztatzen du mozorrotzeak baduela zerikusia hilen kultuarekin:

“Es evidente que hay mascaradas invernales que se relacionan con claridad con la noción de la aparición de los demonios y fantasmas y de las almas de los muertos sobre la tierra alrededor del solsticio invernal” (Caro Baroja 1965: 256).

Urrunago joaten da Varagnac, maskaratuek eta hilek bat egin dezaketelakoan:

“Les masques figurent des fantômes. Quiconque se masque entre parmi les fantômes. Entre les simples déguisés et les revenants masqués, il y a identité de nature, identité que semble devoir être temporaire mais qui peut devenir définitive. Dans les campagnes courent ainsi des histoires de “carnavals” parmi lesquels s’étaient glissées d’étranges compagnons, qui disparaissaient au chant du coq, ou inversement, des aventures de garçons qui, s’étant masqués et mêlés à la bande des mystérieux visiteurs de fermes, ne sont jamais réapparus; leurs camarades nocturnes les avaient entraînés dans l’au-delà” (Varagnac 1948: 85).

Mendebaldeko giro arrazionalistan laster pausatzen da sinesgarritasunaren eta iruzurraren arazoa: kakarroek ederto dakite ez dela izpiriturik maskararen

atzean eta beste herritarrak engainatzen dituzte. Ez bide da hala, zinezko sines-tunarentzat irudiak eta irudituak bat egiten baitute, maskaratuak berak uste bai-tu bere barnean sartu dela antzezen ari den izpiritua. Arizonako Hopi batek utzi digu bere esperientzia, Katxinen dantza erritualera nola prestatzen ziren gogora-tuz. Dantzariak kiva-n bildu dira zeremoniarako jantzeko:

“Nous avons quitté la kiva pour aller à l’ouest du village, où nous avons répandu de la farine de maïs en faisant part de la danse aux Hommes-Nuages-aux-six-point, en priant leurs esprits de venir pénétrer nos corps. Ainsi nous pensions nous transformer en Katcina, comme ceux qui visitaient le village autrefois et aidaient les gens” (Talayesva 1982: 246).

## 6. UDABERRIKO ESKEAK

Inauteriko giroa eta harrabots egiteko tirria ez dira Hausterren gelditzen, Gari-zumaren Erdia ospatzen zuten sutsuenek, eskean baino areago laidoak egiten. Erriberako herri batzuetan mutilak, makilak eskuetan, ateratzen dira “*a matar a la vieja*”, herriko emazte zaharrenaren bila ateetan joka (Iribarren: 134-136).

Eskeak indarrean etorriko dira osteraren Aste Santuan eta Pazkoz, haurrek edo bereterrek eginak. Andana bat aipatu ditu Fabre-Vassas (1994: 238, 253) antropologoak, bereziki Katalunian eta Frantzia iparraldean. Van Gennep-ek (1271-95) haietan erabili koplak ekartzen ditu, Pasioari buruzkoak, edo urteko beste eskeetan erabiltzen diren berdin-berdinak: Domusaindukoak, Eguberriko-ak edo maiatzekoak. Jakiak eskatzen zituzten, arrautzak bereziki eta, batzuetan, txakurrengatik omen, bi hortzeko sarda eramaten zuten, kirtenaren muturrean kako bat zuela handik saskia zintzilikatzeko; beste batzuetan ‘pika’ bat eramaten zuten.

Bereterrak abenduko inuzente ber-berak dira, edo oso antzekoak, inoiz baino kartsuago beren bihurriketariak egiten: gorago azaldu lhabarreko abestian ikusi dugu Jesusentzat eskatzen duten “*aingeru*” horiek ateak hausteko prest direla, “*atsoa hiltzera*” jalgitzen diren mutilen gisan. Lorrenan, Judas erretzeko sua egin behar eta, abar-sendorrak ebasten zituzten (Fabre-Vassas: 197). Judasen saldukeria eta Jesusen hiltzea estakuru, antisemitismo giroan egiten ziren Pazko inguru-ko ateraldiak, eskumen handia zuten gaztetxoek juduen aurka eta ez zuten huts egiten. Batera zihoazen askotan eskerako eta gehiegikeriak egiteko baimenak.

Emitza mota bat oso zabaldua da Pazkoz: arrautzak opaesten zaizkie haurrei, batez ere txokolatzekoak gaur egunean Mendebaldeko Europan, baina egiazkoak Ekialdekoan, askotan opilen gainean edo barruan ezarriak. Eguberrin gurasoak badira Olentzero, Pazkoz amabitxiek dizkiete arrautzadun opilak eskaintzen besoetakoei. Haien formak eta izenak desberdinak dira: Dohoztin “*morrokua*” deitzen zaio eta bi adar ditu (Barandiaran, 1962b: 79); Bizkaian “*mokotza*”, “*pazko-opile*” (Bermion), “*morrokote*” (Arratian): eskualde hartan aita-bitxiek ere eskaintzen dute. Leku batzuetan, hala nola Normandian, Picardian eta Katalunian, eskelariei ematen zieten horrelako opila, haiek ekarri oblearen (zeruko ogiaren) truke (Fabre-Vassas 1994: 238).

Pazko da Elizaren data nagusia eta harek hasten du urte liturgikoa. Urte ofiziala ere martxoaren 1ean edo 25an hasia izan baita, arrazoin bikuna ospakizunak errepikatzeke; Urteberriz bezala, ur benedikatua eta su berria egun hartan eramaten dira etxera, baina aldi honetan elizatik (Barandiaran 1962b: 79).

Maiatza heldu eta orduan ere eskeak. Ohikoak eta onartuak ziren Frantzian, Van Gennep-k dienez (1575 eta ondokoak), XX. mende hasiera arte, eta handik landa, Munduko lehen gerlaz geroztik batik bat, gutietsiak eta gaitzetsiak. Dantzak eta kantak baziren, ez baitezpada bereziak, baizik eta betikoak, datari doi bat egokituak. Abesti batzuek maiatzari dagokion hasiera lirikoa zeukaten (*“De bon matin me lèverai / à la rosée du joli mois de mai”, “Rossignolet du bois joli, / Toi qui chantes le jour et la nuit”*). Jarraian eske bertsuak, *“Ce n’est pas pour nous que nous quêtons, / c’est pour la Vierge et son Enfant”*: ohi bezala, beste munduko bat da eskelarren atzean, haien zilegitasunaren bermea. Bukatzeko, zikoitzendako laido koplak: *“Si vous ne voulez rien donner, / donnez-nous la servante, / ou la fille de la maison”* (ibid.: 1601-1619); eta ez ziren beti hitzetan gelditzen: ateak beren giltzetatik atera, laborantxako tresnak eraman, hots, urte hasieran bezain giro ozarra. Maiatzean eske egiteko usadioa egiaztatua izan da Zallan, Otsaranen eta Avellanedan (ibid.: 1708).

Baztango eskeetan leku handia dute neskatilek: Maiatzeko Erregina, lorez koroatua, eta haren lagunak ateratzen ziren koplak abesten, baita eskarniokoak ere deus ematen ez duenentzat (Van Gennep: 1462). Haien berri ematen du Azkuek:

“Maiatzeko igande guztietan Lekarozen (Arraiotzen egunoro) zortzi neska to ongi jantziak ibiltzen ziran kantatzen. Beretatik bat erregina zen. Xingar, arroltze... eta dirua ere biltzen zuten” (Azkue 1971: 346).

Hona neskatilen hiru koplak, lirikoa lehena, eskekoa bigarrena eta hirugarrena laidozkoa:

“Txuluprina (aliteli) eta arrosa / Ai hori eder galanta! / Naparroako errege jaunak / Egin omen du promesa / Hiru seme dituelarik / Hirurek bana arrosa / Hetarik hauta heuretza da, / Dontzella eder galanta.

Ilarra zaiku loratu / Orainik ez da lekatu: / Ezkongai zeralarikan / Nahi zaitugu koplatu, / saria bildu behar dugu / Gu ere neskatxa gazteak gara / Dotea bildu behar dugu.

Uztan uztan isilik / Horrek ez din dirurik: / Badieraman boltsa zahar bat / Harri kiskoez beterik; / Hunetakoan ekarriko din / Zorri zuriz beterik. / Akio eta makio, / lepezurra hauts balekio; / ni barber mediku egin artio / sendatu ez balekio” (Azkue 1971: 346).

Baziren koplak gehiago, emakume zaharrentzat, bai-eman-ez-eman daudentzat, zekenentzat... Apezarendakoetan aingeruak aipu dira: *“Hemen heldu den apez jaun hau aingeruekin mintzatzen”*; eta ematen duenarendakoetan paradisua: *“Hamalau mila aingeruekin, paradisuari sar zaitezela”*. Beste munda beti ere.

Errogatibak dira maiatzean, komunzki Salvatore edo Asentsio aurreko hiru egunetan. Gerta zitekeen haien kari ere eskatzea: estandarteak txiroek eramaten zituzten, eta gero etxez etxe ibiltzen ziren, ezpata bat eskuetan, hartan urdaia sartzeko (Van Gennep: 1641).

## 7. JONDONE JOANEKO ESKEAK, SUA ETA URA

Suak dira Donibane bezperako jolas ospetsuenak, baina eskeak badu haieran lekua, janaria eskuratzeko ez denean, suaren erregaia biltzeko (ibid.: 1727). Adibide andana jaso ditu Garmendiak ikertu dituen herrietan. Abaltzisketan (Garmendia 1987 II: 17), Donibane biharamunean musikariak baserriz baserri ibiltzen ziren; Anoetan (ibid.: 35) oiloak eskatzen zituzten, gero itsuka manduka jokoan lepoa mozteko (San Nikolasen eta Inauterian bezalaxe); Gorritin (ibid.: 111) puska biltze akordeoiarekin: gasna eta ogia ematen da, eta “*pañueloak en depósito*”. Kanpezun (ibid.: 79) San Pedro egunean egiten dute eske, Donibaneko zikloa ekainaren 29 arte hedatzen da eta. Azkaraten (ibid.: 57), puska biltzera jalgitzen ziren, Eguberriz entzuten den koplak hau kantatuz: “*Etxeko andre zabala, leku oneko alaba, bidean gatoz informaturik limosneroa zirela*”; Beteluko eskelarien kantua, aldiz, egunari dagokio (ibid.: 67), “*laz San Juan, aurten San Juan Bautista...*”: orain dirua ematen diete, lehen jatekoak; Arakilen (ibid.: 117), gauez lorez apaindu duten nesken ateetara joaten dira mutilak dantza eta eske egitera, eta piperropilak ematen zizkieten.

Lesakako Donibaneko besta kontatu du Caro Barojak (1974: 311): mutilek bi talde osaturik, Mairuerrege panpinarekin batzuk eta Kristauerregearekin besteak, eskean aritzen ziren eta herriko plazara biltzen gero “Tantiru Mairu” dantzatzeko. 1597ko dokumentu batean debekatu zitzaizen bi erregeei elizan sartzea.

Eskeez gain badira ohidura ohargarriak: Amezketan adarra jotzen zuten, ezkontzeko bezperan andregaiak trufatzeko egiten zen bezala (Garmendia 1987: 17, 31), beharbada toberek duten asmo berean. Aian, hilen lastakiak erre ohi zituzten bidegurutzetan kantatzen zuten Donibane gauaz (Garmendia, 1987: 53). Gogoratu behar dugu hilak etortzeko eguna dela Donibane:

“En Basse Bretagne, des sièges vides sont disposés autour de la flamme, destinées aux ombres des morts qui viennent s’y placer pour écouter les chants et contempler les danses” (Van Gennep: 1847).

Hemezortzigarren mendean, dio Sébillot-ek (1968 I: 354), harriak ezartzen zituzten suaren ondoan, arbasoak etor zitezen berotzera. Baigorri zioten, suaren inguruan Andre Dona Mariaren litaniak atzekoz aurrera kantatuz geroz, biharamunean Jondone Joaneren bizarrak aurkitzen direla errautsen artean, (Charbonneau 1995: 89). Donazarren eta Luzaiden (Azkuek 1959: 294 eta 304), suaren tokian harri-xabal bat ezartzen zuten, hartara jartzera eta orraxtatzera Jaun Donibane jausten zelakoan, eta haren ile-xuri keta joaten ziren haurrak biharamunean. Gironden, Ama Birgina zen orraxtera jiten, hobeki ulertzen dena, eta haren urrezko ileak aurkitzen omen zituzten goizean Poitou-n (Sébillot 1968 I: 354).

Suaren eta uraren inguruko erritoak anitz dira Donibanez, baina beste aroetan ere agertzen dira, batzuetan eskearekin lotuak. Su egiteko egurraren bila joaten direla gazteak ikusi dugu, non ez duten haurrek lapurtzen.

Suaren motibazio sinbolikoa eta bertutea (arma, garbitzailea, ongarria...) aztertu gabe, ohartaraziko dugu urtean zehar errepikatzen den gaia dela. Frazerrek *Balder the Beautiful* liburuan, bere garaian argitaratuak ziren dokumentu gehienak bildu eta suen zerrenda famatua egin zuen: Udazken, Domusaindu, Eguberri-urteberri, Inauteri, Garizuma, Pazko, Maiatzaren Lehena, Jon Donibane... Eskeak bezala, ez dira denak denetan egiten: "*Dans aucune des régions n'a jamais été pratiqué la totalité des feux cérémoniels énumérés par Frazer*", diosku Belmont-ek, frantses edizioaren sarreran.

Gehienen lagina badugu Euskal Herrian, baina Donibanekoak dira gaur egun hedatuena eta hobekien iraun dute dutenak. Tradizioaren arabera, edozein gaitzen kontra ziren onak eta, modu berezi batez, sorginen kontra. Orozkon sorgin irudi bat erretzen zuten (Arana 1996: 436). Frantzian guti egiten zela Donibanen, dio Van Gennep-ek (1848), "*Aldiz, Inauteri-Garizumako zikloko elementu nagusitarikoa zen panpinen erretzea*".

Horiatariko anitz eta ezagunak ditugu. Lantzeko Miel Otxin eta Zalduondoko Marquitos; Zarpantzar, bekatu askoren zakua eta horregatik, kondentua eta errea eskean erabilia izan ondoan. Haren antzera, sutan akabatzen dute Lesakan Olentzero, ikazkina izanki, berez suarekin lotua. Goizuetako Inauterian ikazkinek, zagia bizkarrean dutela, ikusleak pertsegitzen dituzte. Erretzen diren pertsonaiak hobendun jotzen dira usu, gerta liteke Judasekin asimilatua izanak, nahiz eta harena Aste Santuan edo Pazkoz egiten den komunzki, Abartzuzako Judas eta Judesa, esaterako (Garmendia 1973: 109); batzuetan, gaizkile historikoen bukaera oroitarazten dutela erritoek uste dute egileek, hala nola Torralba del Rio-n Donibanez egiten duten Juan Lobo-ren harrapaketa. Oilarra ere ez da libratuko justizigileetatik, lapurreta leporatuta hiltzen dutenean.

Mota askotako jokoak egiten dira suarekin neguko jaietan. Arabako Barrundian (Azkue, 1959: 335), Gabon-zaharrean zahagi bat makilaren muturrean pizturik eramanen dute, "*Erre pui erre*" esanez; "*Erre ipurdi erre*" ez ote den, pentsatzen du Azkuek, olgetaren izena "*Quemar el culo al año*" baita. Gau berean "*El papelón*" egiten zuten Nafarroako Erriberan: gaztetxo batek gerrian zintzilik paper handia daramala, atzetik darraizkio umeak, su eman nahiz, eta besteak ipurdia balantzaka galarazten die, zirika: "*A que sí, a que no, a que no me quemas el papelón!*" Izugarri zaila zela, beharrik, eta istripurik ez dela sekula agitu diote lekukoek. Inauteriz, Frantziako Côte-d'Or departamentuan: "*On se poursuit autour du bûcher avec des tissons et des torches en paille enflammées*" (Van Gennep: 1034).

Gaitzak suntsitzen ditu suak, batez ere beste munduko izpiritu gaiztoek dakartzatenak. Aldi berean, beste mundukoak erakartzen ditu eta haien ezauzgarria da nonbait: garretan agertzen dira, maiz, handik datozenak. Gomitak izaten baitira mundu honetako jaietara, haien kontra ez denean alde, beti bada sua erabiltzeko arrazoina.

Pazkoko su berria goraiatzten da errito kristauegan, baita etxera eramaten ere. Lapurdiko Gixunen etxeko supazterra itzaltzen dute Donibaneko su egitera joan aitzin, eta handik ekarri ilinti batez pizten dute berriz (Van Gennepe: 1886).

Ur berria ere preziatua da. Lekarozen eta Sakanan, Urtats bezperakoa eramaten dizkiete gaztetxoek herritarrei edo herriko etxera, koplak kantatzen. Hau da Altsasukoa:

“Ur goiena ur barrena / Urteberri egun ona / Graziarekin osasuna / Pake-arekin ontasuna / Jainkoak dagizula egun ona” (Barandiaran 1984: 209; Satrustegi 1980: 40; ikus Azkue 1971: 117).

Urteberriko urak on guztiak bideratzen baititu, halako altxorra opatzen dute nei jateko eta edateko zerbait ematen zaie. Pazkoz benedikatu ur berria ere ona da, eta zer esanik ez Donibanekoa. Larraunen Donibane bezperan da iturriko ura ekartzen etxera, hartaz edateko eta garbitzeko (Azkue 1959: 306). Ihantziko San Juan Iturrian bainatzen eta garbitzen dira gau hartan (Barandiaran 1961: 69). Eta zenbat horrela... Baina uraren eta suaren inguruko ehunka errito ez dira lan honen gaia.

## 8. BEHIN ETA BERRIZ EMAITZA

Kasik urteko jai guztietan zehar errepikatu izan dira eskeak, baita ospakizunetako errito ikusgarrienak suaren edo uraren inguruan egiten direnean ere. Orain kostuak estaltzeko beharrak justifikatzen du diru eskatzea, baina ez du ematen hura dela egikidin bakarra, are gehiago apairu bat egiteko biltzen denean. Eta zio batek ez baititu besteak galarazten, esan dezakegu beste mundutik datozeinei ematea izan dela eskeen oinarri bat, eskaleak zenduen ordezkodirela. Hala izan da urte hasierako jaietan, dudarik gabe, eta segur aski beste askotan ere bai.

Zergatik hain hurbil egoten dira hilak bizien jaietan eta oro har bizitzan? Bi arrazoin bederen balirateke. Lehena, herrikideak direlako, bigarrena ahaltsuak direlako. Varagnac-ek (1948: 118) horrela zerrendatu zituen jendarte tradizionalen lagunaren adin-taldeak: 1. Niniak, 2. Haurrak, 3. Neska-mutilak, 4. Ezkonberriak, 5. Gurasoak, 6. Alargunak, 7. Xaharrak, 8. Zenduak. Lehenago pausatua baitzuen galdera, ea “ez ote duten zenduek azken adin-talde bat osatzen, xaharrenaren ondoko talde bat, hartara batzuek goizegi sartu arren?” (ibid.: 212), eta berehala erantzun (ibid.: 216): “*Horixe baieztatzen du Le Braz-ek, hilarriek hartzen duten lekua azpimarratuz, herriaren erdian kokaturik, baitezpadako alderdia, erabateko erdiunea*”.

Herrikideak dira zenduak. Ez, ordea, besteak bezalakoak, ahal bereziak baituzte:

“Nous pouvons conclure que cette venue massive des morts aux dates périodiques, avait un rapport direct avec la croissance des céréales. La société demandait aux trépassés mieux que l'absence de maladie et de mort : la



nourriture communale, ce qui au fond, n'était que l'aspect positif du même vœu" (Varagnac 1948: 228).

“Gaineratu behar da bizien osasunaren eta asearen gakoa edukitzeaz gain, haien bakea ere baldintzatzen dutela zenduek, eta hotz, gose edo eskasia jasaten dutenean, bortizki jakinarazten dutela. Bakea nahi duenak, hilen bakea lagundu behar du” (Arana 1996: 570). Dohainean edo emaitzan finkatuak diren jendarteetan bezala:

“Comme l'observait M. Mauss, le don rituel se présente sous la forme d'un mélange inextricable d'intérêt et de désintéressement. La raison en est que le sujet qui donne n'est susceptible de satisfaire son intérêt propre que par le détour de la satisfaction de l'intérêt de l'autre - de suivre son désir propre qu'en accèdent à loi du désir de l'autre. (...) La triple obligation de donner, recevoir et rendre constitue l'universel sociologique sur lequel se sont construites toutes les sociétés anciennes et traditionnelles” (Caille 2000: 10-11).

Emaitzak mundu honetakoak beren artean elkartzen dituen gisa berean, beste mundukoekin ere biltzen ditu. Eta harreman hori jai egunetan gauzatu izan da modu berezian.

Antzinako xaharkeriak? Oraingo besta anitzek bazterkeria jasaten duen norbaitentzat edo zerbaitentzat sostengu eta dirua batzeko egiten dira. Batzuetan, presoen edo langabetuen laguntzeko Olentzeroetan, tradizioaren forma ez da batere aldatu. Berriagoak dira euskararen edo ikastolen aldekoak, eta haien arrakasta izugarria erraz ulertzen da, arbasoen ondarea haurrengan biziartzea dutela-eta xedea. Halakoetan parte hartzen duenak eman egiten du, ezinbestekotzat daukan ontasuna erdiesteko. Hilei dirurik edo jatekorik eskaintzen ez zaie-nean ere, emaitzak izan duen zentzu hori ez dateke eragingabea.

## BIBLIOGRAFIA

ARANA (1996) *Orozko haraneko kondaira mitikoak*, EHU.

AZKUE (1959-1971) *Euskalerrriaren Yakintza*, I eta IV, Madrid: Espasa Calpe (1. arg. 1935 eta 1947).

BARANDIARAN, José Miguel de (1961-1962) *El mundo en la mente popular vasca*, II eta IV, Donostia: Auñamendi.  
– (1984). *Diccionario de mitología vasca*, Donostia: Txertoa.

CAILLE, Alain (2000) *Anthropologie du don. Le Tiers paradigme*, Paris: Desclée de Brouwer.

CARO BAROJA, Julio (1965) *El Carnaval*, Madrid: Taurus.  
– (1974). *De la vida rural vasca*, Donostia: Txertoa.

CHARBONNEAU, Henri (1995) *Chapelles et saints guérisseurs basques et béarnais*, Helette: Ed. Harriet (articles apparus en 1936-1937).

DOUGLASS, William (1973) *Muerte en Murélagu*, Barcelona: Barral (*Death in Murelaga*), 1970.

- FABRE-VASSAS, Claudine (1994) *La bête singulière. Les juifs, les chrétiens et le cochon*, Paris: Gallimard.
- FRAZER, James George (1983a) *Le Rameau d'or*, II, Paris: Laffont (*The Golden Bough*), 1911-1915.
- GAIGNEBET, Claude (1979) *Le carnaval*, Paris: Payot.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1973) *Iñauteri: el carnaval vasco*, Donostia: Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones.
- (1984) *Carnaval en Navarra*, Donostia: Haranburu.
- (1987) *Ritos del solsticio de verano*, II, Donostia: Kriselu.
- GINZBURG, Carlo (1992) *Le sabbat des sorcières*, Paris: Gallimard (*Storia notturna, una decifrazione del sabbà*), 1987.
- GRATACOS, Isaure (1995) *Calendrier pyrénéen. Rites, coutumes et croyances dans la tradition orale en Comminges et Couserans*, Toulouse: Privat.
- IMBULUZQUETA, Gabriel (1991) "Cencerradas del día de la víspera de Reyes", *Cuadernos de Etnología de Navarra*, 58, julio-diciembre 1991.
- IRIBARREN, José María (1954) *De Pascuas a Ramos*, Pamplona.
- LEVI-STRAUSS, Claude (1952) "Le Père Noël justicié", *Les Temps Modernes*, 1587 or.
- PRADO, Patrick (2000) "Fêtes globales, fêtes locales. Autour d'Halloween", *Ethnographie française*, 1, 131 or.
- SATRUSTEGI, José María (1980) *Mitos y creencias*, San Sebastián: Txertoa.
- SEBILLOT, Paul (1968) *Le folk-lore de France*, 4 tomes, Paris: Maisonneuve et Larose, (1. arg. 1904-1907).
- TALAYESVA, Don C. (1982) *Soleil Hopi*, Terre Humaine, Plon (1959) (*Sun Chief. The autobiography of a Hopi Indian*), 1942.
- TURCAN, R. (1968) "Mithraïsme", *Encyclopaedia Universalis*, Paris.
- VAN GENNEP, Arnold (1937-1988) *Manuel du folklore français contemporain*, Paris: Picard et Cie.
- VARAGNAC, André (1948) *Civilisations traditionnelle et formes de vie*, Paris: Albin Michel.